



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2013ko urriaren 31, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda irakurri aurretik, alkateak hartzen du hitza eta bertaratuei proposatzen die gai-zerrendako 9. gaia zerrendatik kentzea, Euskara batzorde informatzaileak diktaminatu gabe duelako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA alkatearen proposamena, udalbatzarraren gai-zerrendatik 9. gaia kentzeko.

Gai-zerrenda

1. Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2013ko uztailaren 24ko eta urriaren 4ko ezohiko bilkuretako akten zirriborroak.
2. Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko Botaleku 19 Areako Hiri Antolamendurako Plan Bereziari.
3. Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
4. Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 5/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak; kreditu aldaketa kreditu transferentzien modalitatean eginga dago.
5. Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak 2014rako, 'Urola Kosta' izeneko erregimen bereziko eremuan.
6. Adjudikatzea, egoki bada, Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdi zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa.
7. Onartzea, egoki bada, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria eta baldintza teknikoen orria, Karela kiroldegiaren kudeaketa integrala eta Arraunetxeren eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketa adjudikatzeko.
8. Onartzea, egoki bada, Orioko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantza.
9. Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2013KO UZTAILAREN 24KO ETA URRIAREN 4KO EZOHICO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udal idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarraren 2013ko uztailaren 24ko ezohiko bilkurako aktaren zirriborroan akats bat dagoela 9. gaiaren idazketan: *Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko uztailaren 22an emandako diktamena ikusita* dioen lekuan, honako hau esan behar du: *Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirol eta Gazteriako batzorde informatzaileak 2013ko uztailaren 17an emandako diktamena ikusita.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalbatzarraren 2013ko uztailaren 24ko ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa, udal idazkariak seinalatu duen akatsa zuzenduta.

Era berean, inork inolako oharrik egin ez duenez, udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2013ko urriaren 4ko ezohiko bilkurako akta.

2.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIKO BOTALEKU 19 AREAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; plan berezia Santiago Etxeberria Irastorzak sustatu du eta Juan Eizmendi Aranalde eta Ana Saneiro Rodriguez arkitektoek idatzi dute.



Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012ko maiatzaren 8an erabaki zuen Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari behin betiko onarpena ematea, eta, ondoren, Aldundiak berak, 2012ko urriaren 4ko erabakiaren bidez, Plan Nagusi horren Testu Bategina onartu zuen (2012ko urriaren 23ko GAO, 203. zenbakia).

Udalak, 2013ko uztailaren 5eko 309/2013 alkate dekretuaren bidez, espedienteko txosten tekniko eta juridikoak ikusita, eta Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95 eta 97 artikuluetan ezarritakoan oinarrituta, honako hau erabaki zuen:

- 1.- **LEHEN ONARPENA** ematea Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko Botaleku 19 Areako Hiri Antolamendurako Plan Bereziari.*
- 2.- Espedientea **JENDAURREAN JARTZEA** hogeiei eguneko epean, interesatuek aukera izan dezaten aztertzeko eta, egoki bada, alegazioak aurkezteko udalbatzarraren aurrean.*
- 3.- **BIDALTZEA** aipatutako plan berezia Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Itsasertzeetako Zuzendaritza Nagusiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari, dagozkien txostenak eman ditzaten.*

Botaleku 19 Arearen Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren agiriak, Udalaren lehen onarpena jaso eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegituretarako Departamentuko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zuen, 2013ko uztailaren 18an.

Bestalde, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Itsasertzaren eta Itsasoaren Jasangarritasunaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman zion plan berezi horri 2013ko irailaren 17an.

Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean jarri zen hogeiei egunez, EL DIARIO VASCO egunkarian 2013ko uztailaren 23an eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013ko uztailaren 22an (139. zenbakian) argitaratutako iragarkien bidez.

Espediente urbanistikoa jendaurrean egon zen epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Udalbatzarrak, emandako txosten tekniko eta juridikoak eta hasitako espediente urbanistikoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, eta Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95 eta 97 artikuluetan ezarritakoa eta Tokiko Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 artikuluan —in fine— ezarritakoa betez, Udaleko Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2013ko urriaren 3an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu),



Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko Botaleku 19 Areako Hiri Antolamendurako Plan Bereziari, inolako aldaketarik gabe 2013ko uztailaren 5eko 309/2013 alkate-dekretuz erabakitako lehen onarpenarekiko; plan berezia Santiago Etxeberria Irastorzak sustatu du eta Juan Eizmendi Aranalde eta Ana Saneiro Rodriguez arkitektoek idatzi dute.

2.- BIDALTZEA aurreko erabakiak aipatzen duen plan berezia Gipuzkoako Foru Aldundira, planeamendu urbanistikoaren erregistro administratiboan jaso dezan, argitaratu aurretik.

Plana indarrean jar dadin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikulua aurreikusitako ondorioak sor ditzan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da behin betiko onarpeneko erabakiaren eta arau urbanistikoaren eduki osoa, berariaz adieraziz plan urbanistiko hori goian aipatutako erregistroan jaso geratu dela.

Behin betiko onarpenaren erabakia argitaratuko da, baita ere, lurralde historikoko hedapen handieneko egunkarian.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2014KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2013ko urriaren 21eko Hirigintza, Ingurumen, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean diktaminatu da, era honetara:

1.- Izaera Urbanoko eta Landa Izaerako Ondasun Higiezin Zergari aplikagarri zaizkion karga-tasei dagokienez, proposatzen da urte arteko Kontsumo Prezioen Indizea (aurrerantzean, KPI) igotzea (%2,1), eta eustea, dauden horretan, familia ugariantzako hobariei.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusien uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak hainbat aldaketa egin zituen tokiko zergatan; horietako bat izan zen Ondasun Higiezin Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14. artikulua 5. atalari dagokiona. Aldaketa horiek ikusita, honako hau proposatzen da: etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinetan —subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza ez denean edota hirugarrenen ohiko etxebizitza ez denean (errentan emana dagoelako edo erabilera-lagapenean dagoelako)—, zergaren kuota likidoan Udalak %100eko



errekargoa aplikatzea. Errekargu hori zergaren subjektu pasiboari exijituko zaie eta zergarekin batera sortuko da; likidatu ere, urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

%100eko errekargu hori aplikatzeko, bizitokirako erabileradun higieztintzat honako hau hartuko da: katastroan etxebizitza erabileradun gisa jasota dagoen lokala. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Eragin horietarako, bizitokirako erabilera daukan higiezin bat ohiko etxebizitza dela kontsideratuko da, baldin eta, zerga sortzen den datan, Udaleko erroldan okupatzaileen ohiko etxebizitza gisa jasota badago higiezin hori.

Nolanahi ere, bizitokirako erabilera daukaten ondasun higiezin hauek ez daudela modu iraunkorrean desokupatuta kontsideratuko da:

- 1.- Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza (bertan erroldatua egon behar du.)
- 2.- Bizigune programaren barruan edo antzekoak diren beste foru edo udal programa batzuen barruan erabilera-lagapena duten ondasun higiezinak
- 3.- Subjektu pasiboaren ondasunaren erabilera-lagapena. Senideak izango dira jabearen ondorengoak, adoptatuak, eta aurrekoak edo adoptatzaileak, hau da, zuzeneko lerroko ondorengoak eta aurrekoak.
- 4.- Subjektu pasiboaren ondasunak alokairuan badaude. Alokairua legala izan beharko da, eta legaltasuna frogatzeko subjektu pasiboak kontratua eta azken ekitaldiko errenta aitorpena (PFEZ) ekarri beharko ditu. Maizterrak etxebizitza horretan erroldatuta egon beharko dira.
- 5.- Egiazko ohiko etxebizitzatzat hartuko da, egiaztatzen bada ondasun higiezinaren ematen dela 183 egun baino gehiago urtean.

%100ko errekarguari salbuespenak

- Ondasun higiezinaren gaineko zergaren hoberen bat gozatzen dutenak.
- Ostatatze, ostatu, hostal, nekazaletxe, jatetxe... jarduerari atxikitakoak.
- Errentan edo salgai emateko erakunde publiko eta pribatu baten esku jarritakoak.
- Elkartutako etxebizitzak (2 etxebizitza, bat bihurtuta).
- Errentan emandako etxebizitzak, nahiz eta errenta hartu duena ez bertan erroldatu. Alokairuaren kontratua eta etxebizitza errentan hartu duenaren errenta-aitorpena aurkeztu beharko dira.
- Hirugarren adineko egoitzetan erroldatuta dauden pertsonen titularitatekoak.



- Modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako erabiltzen direnak eta JEZen alta emanda daudenak.

- Bizigune programara atxikiak egoteagatik hobaria dutenak.

- Antolamenduz kanpo daudenak, erortzeko zorian aitortuak (aurritan) edo hirigintza kudeaketara lotuak.

- Hutsik dauden baserriak eta nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenean alta emanda daudenak.

2.- Oriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra urte arteko KPIaren arabera igotzea proposatzen da (%2,1); koefiziente bakarra 1,93an ezarrita geratuko da.

3.- Izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren tasa eta urteko portzentajeak ez igotzea proposatzen da.

4.- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifa guztiei urte arteko KPIa (%2,1) gehitzea proposatzen da, indarrean mantenduz zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiak.

5.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifak ez gehitzea proposatzen da, honako salbuespen honekin: goiko ataletan zehaztuta ez dauden bestelako eraikuntza, instalazio eta obrei aplikatzen zaizkien karga-tasa % 4tik %4,5era igoko da.

Gutxieneko tarifei, bai Oriko Hirigune Historikoan eta bai herriko beste tokietan, urte arteko KPIa (%2,1) gehituko zaie.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek.

6.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifei urte arteko KPIa (%2,1) gehituko zaie:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.

- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea (ezarritako hobariak indarrean segituko dute).

- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eksklusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.



- Edozein udal bide publikoren hegala-irteera okupatzea.
- Udal erabilera publikoko lurra okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean, indarrean eutsiz ezarritako hobariei.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariek indarrean segituko dute.

Herriko azokako postuetan ez zaie inolako gehikuntzarik aplikatuko Orion erroldatuta dauden postuetako titularrei; Orion erroldatuta ez daudenei, berriz, bikoiztu egingo zaie 2013ko tarifa.

- Bide publikoko lurzoru, lurrazpia eta hegalkinen erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Kutzazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalamendu eta funtzionamendua.
- Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroaren erabilera. Tarifak behetik biribilduko dira eta horrela geratuko dira:

	Euro/pertsonako
10 urte arteko haurren sarrerak.....	1,55
Erretirodun eta pentsiodunen sarrerak	1,55
Helduen sarrerak.....	2,05
Taldeentzako sarrerak (gutxienez 15 lagun)	1,05

7.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak ez dira igoko:

- Autotaxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak edo baimenak ematea.
- Udal administrazioak edo udal agintarietara eskariz emandako agiriak.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea.



- Estoldako zerbitzua ematea.
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Orioko Eguneko Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea.
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskaketak egitea.
- Udal pilotalekuaren erabilera eta Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilera.
- Udak kiroldegiko garajeen erabilera.
- Kultur etxeko aretoen erabilera.
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamenduen erabilera. Erabiltzaileei aplikatzen zaizkien hobariak indarrean segituko dute; horretarako, diru-sarrera osoak kontuan hartuko dira (lan errentak eta kapitala) eta ez bakarrik pentsioaren kopurua.
- Udal futbol/softbol zelaia erabiltzea. Egoitza soziala Orion duten klub eta kirol elkarteak salbuetsita egongo dira.
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Teniseko eta squasheko udal pisten erabilera.
- Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea.
- Udalaren txosnaren erabilera.
- Udalaren oholtzaren erabilera.
- Mendibeltz futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera

8.- Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerriko kaleetan erabakitako zonen barruan, eta muga jakin batzuekin, aparkatzeko tarifak honela geratuko dira:

- Hondartzako aparkalekua (turismoak): 1,25 €/ordu edo zatiko.
- Udal eranskailuaren prezioa: 40 euro/denboraldiko

Laugarren aparkatze-ordutik aurrera, tarifaren %20ko hobaria aplikatuko da.

9.- Udal hilerrian zerbitzuak emateagatik eta kontzesioengatik honako tarifak aplikatzea proposatzen da:



- Hilobiratze eskubideak, oro har, eta gorpuak hobitik atera eta kanposantuko beste leku batera aldatzeagatik: 60 €
- Gorpuak hobitik atera eta beste herri batera aldatzeagatik: 108 €
- Gorpuak hobitik ateratzea egoera berezietan: 250 €
- Nitxoa adjudikatzea kontzesio administratiboko erregimenpean (10 urte): 875 €
- Panteoia adjudikatzea kontzesio administratiboko erregimenpean (50 urte): 5.900 €
- Nitxoa adjudikatzearen luzapena kontzesio administratibo erregimenean (5 urte): 375 €

10.- Zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua emateari dagokionez, honako tarifak aplikatzea proposatzen da:

	Urteko euro-kopurua
a) Etxebizitza bakoitzeko	115,08
b) Komertzio bakoitzeko (zapata-dendak, jostailu-dendak, ile-apaindegiak...) eta zerbitzuak.....	258,68
c) Janari-denda bakoitzeko (harategiak, arraindegiak, urdaitegiak, janariak orokorrean...)	376,92
d) 6 langile baino gehiagoko supermerkatu bakoitzeko	1.142,00
e) Tabernak, kafetegiak eta antzekoak.....	368,40
f) Jantokia duten tabernak.....	393,64
g) Jatetxeak, erretegiak eta antzekoak	565,28
h) Lokal industrialak:	
10 langile arteko industriak.....	244,32
10 langile baino gehiagoko industriak	577,28
i) Bulego komertzialak, gestoriak eta aholkularitza-etxeak	153,60
j) Banketxeak, Aurrezki Kutxak eta Finantza Entitateak.....	491,00
k) Ostatuak, pentsioak eta nekazaritza-turismoak, izar bateko eta biko hotelak	460,32



l) Hiru izar eta gehiagoko hotelak1.125,00

m) Elkarte gastronomikoak:

60 m2 edo gutxiagoko azalera dutenak 115,08

60-120 m2 arteko azalera dutenak..... 376,92

120 m2 baino gehiagoko azalera dutenak 393,64

Ezarrita dauden hobariak bere horretan segituko dute.

11.- Orioko Musika Eskolako musika-irakaskuntzagatiko tarifak urte arteko KPIa + 2 puntu igotzea proposatzen da (%4,1), honako zehaztasuna eginda: Aiako herriko bizilagunei 2. tarifa aplikatuko zaie; hau da, Oriotik kanpo bizi direnei aplikatzen zaiena.

12.- Udal kanpinaren erabilerari dagozkion tarifak proposamena honako hau da:

- Bungalowen eguneroko tarifak ez dira igoko.
- Partzela finkoen tarifak urte arteko KPIa + 3 puntu igotzea proposatzen da (%5,1).
- Partzela semifinkoen tarifak urte arteko KPIa igotzea proposatzen da (%2,1).
- Partzela arrunten tarifak urte arteko KPIa igotzea proposatzen da (%2,1).
- Gainerako zerbitzuen tarifak ez gehitzea proposatzen da.

13.- Udal kiroldegia erabileragatiko tarifak urte arteko KPIa + 5 puntu igotzea proposatzen da (%7,1), abonatuaren kasuan; eta urte arteko KPIa + 7,5 puntu igotzea jarduerari dagozkien tarifatan (%9,6).

14.- Ur-horniduraren eta hartuneen tarifak direla-eta, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak aurkeztutako proposamena onartzea proposatzen da:

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren Ur Zerbitzua erregulatzen duen Ordenantza Orion aplikatzeari buruz, proposatzen da honakoa erabakitzea: 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ordenantza hori eguneratzea eta kontsumo-tarteak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona-kopuruaren arabera izatea.

Horretarako, etxebizitza bakoitzeko pertsona-kopurua Orioko Udalaren azken erroldan azaltzen dena izango da.

Etxebizitzan ez bada inor azaltzen erroldatuta, aplikatuko den prezioa goiko tarteari dagokiona izango da: 330 litro baino gehiago, biztanleko eta eguneko.



15.- Arraunetxeren erabilerarako berariazko tasa bat ezartzea proposatzen da:

Kirol medikuntza zerbitzuaren tarifak hauek izango dira:

Gaitasuneko oinarritzko testa.....	35 euro.
Fisioterapia saioa.....	35 euro.
Hipoxiako lehen saioa.....	60 euro.
Hipoxia saioa.....	40 euro.

16.- KTA (Katea) udal eraikina erabiltzeko berariazko tasa bat ezartzea proposatzen da:

Alokairuari aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

- Metro karratuko eta eguneko, 0,10 euro.

Lokalak erabiltzea doanekoa izango da, bi betebeharrak hauek batera betetzen direnean:

- Jarduera euskaraz egiten denean eta ordainpekoa ez denean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko urriaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoroko (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita, bulego orduetan.



c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 5/2013 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2013 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 24.551 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko urriaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2013ko aurrekontuari dagokion 5/2013 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 24.551,- euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2014RAKO, 'UROLA KOSTA' IZENENKO ERREGIMEN BEREZIKO EREMUAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; ASOCIACION GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak eskaria aurkeztu du, 2014an Urola Kosta eskualdeko auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzea proposatuz; tarifa berrien proposamenarekin batera, ustiaketa kostuen azterketa ere aurkeztu du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko urriaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA 2014an Urola Kosta eskualdeko auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzeko proposamena, ASOCIACION GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak aurkeztu duena. Aldaketa 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean.

Beraz, 2014ko tarifak honako hauek izango dira:

TARIFA URBANOAK 2014

PROPOSAMENA	GUTXIENENKO TARIFA	KILOMETRO BAKOITZEKO	ITXOITEN PASATAKO ORDUA
-------------	-----------------------	-------------------------	----------------------------



1. TARIFA*	5,2286	1,1158	21,3091
2. TARIFA**	6,2240	1,7796	34,7829

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jai egunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.

6.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN AISIALDI ZERBITZUAREN GESTIOAREN KONTZESIOA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lehiaketaren iragarkia 2013ko abuztuaren 19an argitaratu zen 156. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, lehiatzaile bakarra aurkeztu da:

- KASTORE GEST, SL

Kontratazio Mahaiak proposatu du, gehiengoz, Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdi zerbitzua emateko kontratua KASTORE GEST SLri adjudikatzea, bere proposamenak betetzen dituelako, orokorrean, lehiaketaren helburuak, baldintza ekonomiko-administratibo partikularren 16. artikuluan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Kirol, Aisialdi eta Gazteriako batzorde informatzaileak 2013ko urriaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2013ko irailaren 26an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdi zerbitzua emateko kontratua **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** KASTORE GEST SLri; aisialdi zerbitzuen ustiaketarako urteko kanona 13.200 eurokoa izango da (BEZik gabe).



3.- JAKINARAZTEA erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsioak adieraziz.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (3.960 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Gai-zerrendako zazpigarren gaiaren eztabaida hasi aurretik, Jon Agirresarobe zinegotzi eta Euskara batzordeko buruak (Bildu) hitza hartzen du, kritika eraikitzaile bat egiteko: udalbatzar honek gaur onartu behar dituen baldintza juridiko-ekonomiko-administratiboen orriaren zirriborroa eta baldintza teknikoen orriaren zirriborroa gazteleraz prestatu dira eta, ondoren, euskarara itzuli dira; bere ustez, Udalak gaiari buruz hartuta dituen erabakiak kontuan hartuta, kontrako bidea zen egokia eta egin beharrekoa: alegia, udal teknikariek euskaraz sortu behar zituzten dokumentu horiek, gero gaztelaniara itzultzeko.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA, KARELA KIROLDEGIAREN KUDEAKETA INTEGRALA ETA ARRAUNETXEREN ETA BESTE ANTZEKO ZERBITZU BATZUEN KUDEAKETA ADJUDIKATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirol, Aisialdi eta Gazteriako batzorde informatzaileak 2013ko urriaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orria eta baldintza teknikoen orria, Karela kiroldegiaren kudeaketa integrala eta Arraunetxeren eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketa adjudikatze.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

a) Erakundea: Orioko Udala.



b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren xedea.

a) Xedearen deskribapena: Kontratu honen xedea da Karela kiroldegiaren kudeaketa integralaren eta Arraunetxeren eta beste antzeko zerbitzu batzuen kudeaketaren kontzesioa, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orriaren arabera.

b) Epea: Sei urte. Epea bi urteko alditan luza daiteke, bi aldeak ados jarrita; luzapenen gehieneko epea 10 urtekoa izango da.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

a) Tramitazioa: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Modua: Lehiaketa.

4.- Udalaren diru-laguntza.

Udalaren gehieneko ekarpena urteko 225.000 eurokoa izango da.

Lehiatzaileek aukera izango dute Udalaren ekarpena gutxitzen duten eskaintza ekonomikoak aurkezteko.

5.- Bermeak.

Behin betikoa: 60.000 euro.

6.- Iragarki gastuak:

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Espedientearen dokumentazioa jendearen eskura izango da www.oriora.com webgunean, kontratistaren profilean.

8.- Proposamenak aurkeztea.

a) Epea: 20 lanegun, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.

c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza.



Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.

d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

9.- Proposamenak irekitzea.

a) Tokia: Orioko Udala.

b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko hirugarren laneguna. Egun hori laneguna ez bada, hurrengo lanegunean egingo da.

c) Ordua: 12:00etan.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO GAZTEEN AISIALDIKO LOKALAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2013ko urriaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsororo (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko gazteen aisialdiko lokalak arautzen dituen udal ordenantzari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA udal ordenantzaren aldaketa hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal ordenantza hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantza, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.



ORIOKUDALA

Udalbatzarraren ohiko bilkura
2013/10/31

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,